



2018KO AZAROAREN 27KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko azaroaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Bere ezin etorria adierazi du Ioseba Hernandez Madinabeitia zinegotziak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2018ko urriaren 30ean egindako bilkuraren akta.

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du onartu egiten duela baina Sasieta inguruan, hondakinen kudeaketaren harira, egin zuen gogoeta ez dela jasotzen aktan, eta uste duela gogoetak jaso behar liratekela.

Idazkariak erantzuten dio akta akordioena dela eta gogoetak ez direla jasotzen. Dena den akta grabatu egiten denez hor gelditzen dela jasota.

Honen ondoren, akta idatzita dagoen moduan onartzen da, bertaratutako guztien aldeko botoekin.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- UDAL ERAIKINEN GARBIKETA KONTRATUAREN LUZAPENA.-

Udal honek, udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratua Gureak Garbitasuna S.L.U. enpresarekin izenpetu zuen, bi urterako, 2016ko martxoaren 30ean. Kontratua luzagarria da, urte beteko bi luzapenen bidez.

Kontratua urte betez luzatzea planteatzen da. Oraingo hau lehen luzapena izango litzateke.



Gureak Garbitasuna S.L.U. enpresak luzapena egiteko bere adostasuna adierazi du.

Udal zerbitzu teknikoek ere luzapena egitearen aldeko txostena egin dute.

Hau guztia kontuan izanda, osoko bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, udal honek Gurea Garbitasuna S.L.U. enpresarekin udal eraikinen garbiketa zerbitzua emateko izenpetuta daukan kontratua urte betez luzatzea onartu egiten du.

IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 7 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.


Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Alkateak esaten du kreditu aldaketa honetan bi partida jartzen direla konponkete-tarako, bat kiroldetik teilatua konpontzeko 35.000 €koa eta bestea kiroldetik gelak egokitzeko 50.000 €koa; eta beste alde batetik kiroldetik birmoldaketaren hurrengo bi faseetarako kopuruan izendatzen direla, fase bat 675.000 €koa eta bestea 3.440.000 €koa. Diru sarreratan berriz diruzaintzako gerakina erabiliko litzateke bederatzehun mila euro inguru eta gainontzekoa aurten izandako sarrera handiagoak erabiliko lirateke.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du ezinezkoa egiten zaiela kreditu aldaketa hau onartzea nahiz eta proiektuarekin ados egon. Kreditu aldaketa honen bidez egin nahi den proiektuak, udalaren aurrekontu osoaren zenbatekoa zenbat den, eta honek daukan dimentsioa kontuan izanda, legealdi oso bateko proiektua dela eta ez dela bidezkoa orain, gauden garaian, eta horrelako zenbateko handia kreditu aldaketa baten bidez sartzeari aurrekontuan. Diru sarrera handi bat egon dela, ados, baina horrek gogoeta bat egitea behar lukeela dirutza hori zertara bideratu erabakitzeko.

Alkateak erantzuten dio esanez ondo ulertu baldin badu, proiektuarekin denak ados daudela. Esaten du baita ez dela egia gogoetarik ez denik egin eta urte asko dar-mazkigula proiektu honen inguruan hitz egiten, eta orain dirua bideratzea planteatzen de-nean bi faseetarako dela eta proiektuak fase gehiago ere badituela. Eta proiektu honetara bideratzea planteatzen dela hau ikusten dutelako une honetan behar gehienekoa bezala. Proiektu hau ez dela ez hamabost egunean ezta sei hilabetean egingo baina zerbait egiten hasteko dirua izendatzea beharrezkoa dela. Gehitzen du, hemen planteatzen dena, gauza baten inguruan lanketa hasteko dirua jartzea dela, ez dela planteatzen lizitaziora ateratzea ez beste ezer.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) erantzuten dio ez duela esaten hori horrela ez de-nik, baizik eta dirutza handi hori hontara bideratu behar den edo beste gauza batzuetara, beste esparru batzuetara ere, gogoeta egitea eskatzen dutela.



Alkateak erantzuten dio proiektu hau estrategikoa dela esatean ados baldin badaude, ez dakiela non dagoen kontraesana.

Hau guztiaren ondoren, gaia bozketan jartzen da, eta udalak, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako 5 botoz (EH Bildu), honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 7 zbk.dun kreditu aldaketarako espediente onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
II	Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa	85.000,00
VI	Inbertsio errealak	4.115.000,00
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		4.200.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VI	Inbertsioen besterentzea eta hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk	3.220.396,78 €
VIII	Finantza aktiboak	979.603,22 €
GUZTIRA		4.200.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

V.- 2019KO AURREKONTUA.-

Jarraian 2019 urterako aurrekontua aurkezten da osoko bilkurara bere onarpenerako. Aurrekontu honek udalarena berarena eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearena hartzen ditu bere barne.

Aurrekontu hauek Ogasun Batzordeak informatuak izan dira.

Alkateak, kapitulukako xehetasunen azalpena egiten du. Esaten du gastuetan lehen kapituluan hainbat partida igo direla egon daitezkeen egokitzapenenak aurreikusiz, gizarte zerbitzuetan eta administrazio orokorrean eta baita ere zerbitzuetako arloan aldi batean lanpostu batean bi lagun aritzea aurreikusiz. Esaten du baita ere egokitzapen hauek egin aurretik, zerbait estrukturala sortu aurretik, azterketa sakona egin beharko li-



tzakela eta hau egin bitartean aurretik eginda dauden antolaketa azterketen ondorioak jarraituko direla eta horren harira iaz hutsik gelditu zen kiroldogiko atezain lanpostua amortizatzea planteatzen dela. Goi karguen ordainsarien partida ere igo eginda, datorren legegintzaldian egon daitezkeen planteamenduei begira. Bigarreanean ez dago aldaketa aipagarririk. Laugarrenean hainbat diru laguntza izendun berri sartu dira eta baita ere herriarren bidez antolatutako ekintzak finantzatzeko partida berria jarri da. Eta hemendik kanpo, ezohiko gastuak izango liratekeen bai inbertsio bai konponketa partiden azalpena egiten du. Eta hauen artean dagoen "Gurutze 3-4 urbanizazioa berritzea" partidari urteanitzeko izaera onartzea planteatzen da, gastua 2019 eta 2020 urteetara hedatuko delako eta atalkako egitasmotan banatu ezin daitekeelako. Hau honela, 2019ko aurrekontuan 250.000 € eta 2020 urterako 650.000 €ko konpromiso kreditua finkatzen da.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du bitxia egiten zaiela estrukturalak izan daitezkeen postuak sortu aurretik azterketa egin behar dela entzutea eta aldiz lanpostu baten amortizazioa eta postu hori zeharkako kontratazio bidez betetzea erabaki dela, eta azken honetarako ez dagoela azterketa beharrik. Eta beraiek ez dutela horrekin bat egiten. Esaten du baita ere, aurreko puntuari lotuta, kreditu gehigarri bidezko 7. kreditu aldaketarenari, aurrekontu hauek fikzio bihurtu direla. 2018ko aurrekontua eta gero izan denak ez duela errealitatearekin zer ikusirik, eta 2016an ere gauza bera gertatu zela, eta ohikoa izan den zerbait izan dela. Eta onartzen den aurrekontuak ez duela islatzen gero egiten dena eta guzti horregatik ezezkoa emango diotela aurrekontu honi.

Alkateak esaten du koherentzi falta salaketari erantzunez, 90. hamarkadan udal honetan hartutako erabakien ondoriozko erabakia dela planteatzen dena. Eta koherentzi falta ezarena behar bada izan liteke orain dela bi urte ez amortizatu izana, zeren 2006an lanpostuen funtzionarizazioa egin zenean, lanpostu hori eta garbiketako horrexegatik utzi ziren lan hitzarmeneko moduan. Aurrekontu hauek fikzioa direla esanari eta aurten 7. kreditu aldaketa dela esanari, erantzuten dio esanez aurrekontua tresna bat dela eta kudeatu beharko hurrengo sei hilabetetan eta handik hurrengo sei hilabetetan eta kasu batzuetan hurrengo hamabi hilabetetan baita ere, eta ezin dela perspektiba hori galdu.


Gaiaz eztabaidatu ondoren eta Ogasun Batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko zazpi boto (EAJ) eta aurkako bost botoz (EH Bildu), honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehena.- 2019 urterako udal aurrekontua, bere espedientean dagoena, hasierako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontua hartzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapitulukako laburpenak honako hauek dira:

2019KO UDAL BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENeko ZERGAK	1.501.600,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	120.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.513.215,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.988.000,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	18.027,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIOEN BESTERENTZEA ETA HIRIGINTZA-	522.000,00 €



		KO JARDUERETATIK ONDORIOZTATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	17.000,00 €
		SARRERAK GUZTIRA	7.679.842,00 €
GASTUAK:			
I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.487.505,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	3.879.767,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	745.070,00 €
V	KAPITULUA	KREDITU GLOBALA	250.000,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.150.000,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	166.500,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €
		GASTUAK GUZTIRA	7.679.842,00 €

2019KO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

SARRERAK:

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	74.183,00 €
		SARRERAK GUZTIRA	74.183,00 €

GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	12.000,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	62.183,00 €
		GASTUAK GUZTIRA	74.183,00 €



2019KO UDALAREN AURREKONTU KONTOLIDATUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.501.600,00 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	120.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	1.513.215,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.988.000,00 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	18.027,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ-	596.183,00 €

VII	KAPITULUA	TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	17.000,00 €
		<u>SARRERAK GUZTIRA</u>	<u>7.754.025,00 €</u>

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.487.505,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	3.891.767,00 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	745.070,00 €
V	KAPITULUA	KREDITU GLOBALA	250.000,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	1.212.183,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	166.500,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	1.000,00 €
		<u>GASTUAK GUZTIRA</u>	<u>7.754.025,00 €</u>

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost egun baliodunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espresuki hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

VI.- PLANTILLA ORGANIKOA ETA LAPOSTUEN ZERRENDA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkeztzen dira bere onarpenerako 2019ko Udal Langileen Plantila Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen direnak.

Alkateak esaten du 2018ko plantilla eta lanpostuen zerrendarekiko aldea kiroldegi-ko atezainaren postuaren amortizazioarena da.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du lehen esan duten moduan beraiek lanpostu hauek enplegu publikoaren bidez betetzearen aldekoak direla eta beraz aurka bozkatuko dutela.


Osoko Bilkurak, dokumentu hauek aztertu ondoren, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurka-ko 5 botoz (EH Bildu), 2019ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda, bere espedientean daudenak, onartu egiten ditu.

VII.- EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA.-

Lazkaoko udala osatzen duten bi talde politikoek, euskararen nazioarteko eguna dela eta, adostu duten adierazpen instituzionalak honela dio:

"2018KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA

Bizi. Prest



Egunero delako euskararen aldia

Bizi. Prest.

Halaxe datorkigu euskara bere aurtengo Nazioarteko Egunean. Eta halaxe doa etorkizunerantz. Mingainetan, pantailetan, uhinetan bizi-bizi. Zernahitarako prest.

Etxean bizi-bizi, kalean bezala; bizi-bizi eskolako jolastokian, ikasgelan bezala; lantokian bizi-bizi, lagunarteko solasaldietan bezala; bizi-bizi osagilearenean, saltokian bezala; zuzeneko harremanetan bizi-bizi, birtualetan bezala; bizi-bizi kirolean, liburuetan edo zineman bezala.

Prest gaudelako gu, euskal herritar gehien-gehienok, hori horrela izan dadin. Prest gaudelako euskarari gure hitzen hegoak eskaintzeko, ahotik belarrira, bihotzetik bihotzera, burutik burura hegaldada dadin, samur bezain indartsu. Dakiguna dakigula, mintzatzen ez dena baita euskara eskas bakarra.

Prest gaude, eta gogotsu, euskarak gure ahoan bizi-bizi dantza egin dezan. Gogotsu gaude, eta prest, gure belarrietan atseginez onartzeko euskararen soinua. Dakiguna dakigula, entzuten ez dena baita euskara kaskar bakarra.

Prest gaudelako, eta ezin gogotsuago, euskaraz ere gero eta gehiago bizitzeko. Ingurune guztietan. Eginkizun orotan. Natural-natural. Bizi-bizi.

Euskal hiztunok horretarako egin behar dugun urratsa ez da txikia, ez erraza. Borondate aktiboa eskatzen digu. Erosokeriari izkin egitea eskatzen digu. Sakon errotutako ohiturak aldatzea eskatzen digu. Kontzientzia ahalegin sendoa eskatzen digu. Euskaraz ere herritar izateko aukera egitea eskatzen digu.

Eta eskatzen digu, batez ere, euskaldun izatetik euskaldun bizitzera doan tarte gairatze-ko jokaera aktiboa. Eta etengabea.

Euskararen erabileran egin beharreko urrats erabakigarri hau zinez da gizarte-eraldaketa zabal sakona, neurri historikoa duena, gure gizartearen bilakabidean mugarri izango dena. Eta, neurri horretako aldaketa guztien antzera, adostasuna du elikagai nagusi, prestasun eta prestutasunarekin batera.

Euskararen gizartea. Gizartearen euskara

Adostasuna eta batasuna dira, beraz, bidea, euskarak batura behar duelako, ez kenketa; biderketa behar du, ez zatiketa.

Herri aginteak, gizarteak bere dinamika propioetik sorturiko erakundeak, herritar guztiok eta gutariko bakoitza: den-denok gara, aldi berean, euskararen erabilera eraginkortasunez areagotzeak ezinbestekoa duen adostasun zibil zabalaren osagai eta eragile, aldi berean garen bezala haren onuradun eta bultzatzaile, bideratzaile eta babesle.

Baina aktibotasuna, praktikotasuna, da adostasun horren osagarri nahitaezkoa. Aski ez delako, honezkerok, aldarrikapen hutsen linboan galtzen diren asmo arranditsuak plazaratzea. Atzean utzi behar dugulako beste inork euskararen alde egin lezakeenaren zain ego-



tea. Lorgarria delako, erabat, euskararen erabilera hazkunde iraunkorraren bidean jartzea, baldin eta herritar bakoitzak euskara ezpainetara eramateko bere erabaki pertsonala gauzatzen badu, hori eta ez besterik delako, azken finean, gizartearen helburu kolektiboa: aukera pertsonal ugariaren batura.

Eta egin egingo dugu.

Munduari euskaraz ere helduz, euskararentzat belarria zein gogoia prest izanez, euskara ahoz zein idatziz bizi-bizi eskainiz. Euskarak eguneroko bizitza aberastu dezan; eguneroko bizitzak euskara bete dezan.

Elkarrekin.

Elkarrenganako errespetu osoz, elkarrengandik adorea jasoz.

Elkarri euskara eskainiz.

Euskara bizi-indarrez sendoagotuz. Bizi. Prest.

Egunero delako euskararen aldia.”

VIII.- ENIRIO ETA IGARATZA TXABOLEN ARTEKO BIDEAREN EGOKITZAPENA DELA ETA, AUZIBIDEAN JARRITAKO ORDEZKARI POLITIKOEI BABESA.-

Alkateak esaten du Enirio eta Igaratza txabolen arteko egokitzapena dela eta “Enba” nekazarien sindikatuak mozio bat bideratu duela udaletara. Hala ere hemen mozio propio bat aurkeztearen hautua egin dela.

“Enirio eta Igaratza txabolen arteko bidearen egokitzapena” izenburupean Alkatetzak aurkeztutako mozioak honela dio:

“2015. urtean Enirio Aralarko Mankomunitateko Zuzendaritza Batzordeak Inbertsio Beharren Plana onartu zuen. 2016ko abenduaren 14ean Gipuzkoako Batzar Nagusiek Aralarko Artzain eta Abeltzainen duintasunaren aldeko ebazpen bidez, Foru Aldundiari eskatu zion, Mankomunitateak onartutako inbertsio plana babestu eta gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren baliabide tekniko zein ekonomikoak bideratu zitzala.

Enirio eta Igaratza txabolen arteko bidearen egokitzapena Inbertsio Beharren Planaren zerrendan jasotako proiektua da. Horrela izanik, Enirio Aralarko Mankomunitateak sustatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendu du.

Prentsara trasladatu denez, eta prentsa bidez jakin izan dugunez, 2018ko irailean mendian gauzatzen hasi denean, auzibidean jarria izan da, eta Gipuzkoako Foru Aldunditik baimena bideratu duten ordezkari politikoak zein Mankomunitatean, aldeko botoa eman duten ordezkari politikoak auzibidean jarriak izan dira. Bide penaletik jo dutela eta bakoitzaren izen abizenak lau haizetara zabalduak izan dira beldurrarazte intentzio jakin batekin.

Egoera honen aurrean Lazkaoko Udalak



LAZKAOKO UDALA

Enirio Aralar Mankomunitateko ordezkariak "Enirio ta Igaratza txabolen arteko bidearen egokitzapena ibilgailu motordunentzat" gauzatzeko proiektuari emandako botoa, eta gehiengoz hartutako erabakia errespetatu egiten du.

Mankomunitatean Lazkaoko ordezkari den, eta epai bidean jarria izan den Aitor Altunak emandako botoarekin bat egiten dugu, eta geure erabateko babesa adierazten diogu, boto horren ondorioak geure eginez.

Gipuzkoako Foru Aldundian obra egiteko baimena bideratu duten ordezkari politikoei eta Mankomunitatean obra proiektua gauzatzearen aldeko botoa eman duten eta auzi bidean jarriak izan diren ordezkariak gure babesa adierazten diegu, eta epai bidean jartzearen ondorioz jasaten ari diren jazarpen mediatikoaren aurrean gure babesa azaltzen diegu.

Udal honek bertako zinegotzia den Aitor Altunari, auzi honetan beharrezko aholkularitza eta defentsarako beharrezko dituen baliabide guztiak eskaini, eta bere eskura jartzen ditu. Era berean, epai bidean jarri eta beldurrarazte helburuarekin bideratutako jazarpenean bere pertsona edo eta izenaren kalte egiten dioten delitu jarrerarik egon litekeen aztertu eta hala badagokio bide hori hartu duten pertsona edo elkarten aurka egiteko. bere baliabide guztiak ere eskaintzen dizkio."

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du, hasteko, idatzi honen erredakzioak elkartasuna adieraztetik haratago doan zerbait adierazten duela. Esaten du baita ere, beraien Enbaren idatziaren berririk ez dutela. Esaten du baita ere auzibidean jarri dutela prentsa bidez jakitea ez baizik eta berak auzibidean jarri dutela jaso al duen izango litzakela galdera. Esaten du baita ere pertsona horren izena aireratua izan dela salatzen dela eta gero mozio honetan bertan bi aldiz azaltzen dela pertsona horren izena eta horrek ere ez daukala zentzu handirik. Esaten du baita ere mozioan esaten dela jazarpen mediatikoaren aurrean babesa azaltzen zaiola eta esaten du beraien ere jazarpen mediatikoaren mila episodio jasan dituztela, berak zehazki, aurreko legegintzaldian, eta orain horrelako kezka azaltzeak harritu egiten dituztela, harren laurdenik ez denean. Eta esaten du baita ere, azkeneko esaldian, elkartasuna adieraztetik haratago norbaiten aurka egiteko babesa eta baliabideak eskaintzen direla eta horrek ere sortuko duela salatzen den beldurraraztea. Eta azkenik, eta idazkariarengana zuzenduz, galdetzen dio ea mozioko "mankomunitateko ordezkariak emandako botoarekin bat egiten dugu, eta gure erabateko babesa agertzen diogu, boto horren ondorioak gure eginez" horren bozketan baietza eman edo parte hartzeak beraietzat ondorioak ekar litzazkeen.

Idazkariak erantzuten dio orain ezin diola erantzun, aztertu egin beharko lukeela.

Alkateak esaten du tristea iruditzen zaiola mozio honi ematen dioten erantzuna. Hau azkenean mozio bat dela, eta posizionamendu politiko bat dela eskatzen dena. Esaten du baita ere ohitu gerala gauzak prentsa bidez jakitea eta egokia, pertsona bat auzibidean jarri baldin bada, dagokion pertsonak zuzenean berak jakitea izango litzakela. Eta hori da min egiten duena, pertsonari eta pertsonaren inguruari.

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du ez duela gogoko inor auzibidean ikustea. Esaten du baita ere, politikoki agian gauzak ez direla ondo egin eta bere ustez ez direla ondo egin, eta nahiz eta horretaz zenbait organismok behin eta berrito ohartarazi aurrera jarraitu dela erabakiarekin, eta hau horren ondorioa dela. Eta esaten du baita ere hemen ez dela hitz egin honetara zeren ondorioz iritsi den, zein den aurrera eramaten ari den



proiektua. Eta esaten du baita ere, hau mozio bat baldin bada, berotasunetik idatzitako mozio bat dela.

Alkateak esaten du eztabaida nahi den lekura eraman daitekela baina beraiek hemen salatzen dutena dela, demokraziak ematen dituen baliabideak beste helburu batzuetarako erabiltzen ari direla, eta horrekin komunikabideetara joatearena salatzen dutela.

Andonegi zinegotziak esaten du ez dutela uste onartzeko moduko idatzia denik baina prest daudela eseri eta idatzi bat adosten saiatzeko.

Gaiaz hau guztia eta beste hainbat interbentzioren ondoren, mozioa bozketan jar-tzen da, eta osoko bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako 5 botoz (EH Bildu) mozioa onartzea erabakitzen du.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du hurrengo hilabeteko ohiko osoko bilkurak aste bete aurreratu-ko dela, berez dagokion 25a jai eguna delako.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten dio Altuna zinegotziari hemendik kanpo hitz egin nahi badu, bera prest dagoela.

Altuna zinegotziak (EAJ) erantzuten dio esanez bizikidetzaren inguruan oso ilusio-natuta hasi zirela bilerak egiten eta oso dezepzionatuta atera zirela.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko bederatziak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziur-tatzen dudalarik.

